

LITERATURA ANTZERKIA ARTEA ZINEMA MUSIKA DISEÑUA PUBLIZITATEA ARKITEKTURA INTERNET KOMIKIA BIDAIAK ZIENTZIA DANTZA IRITZIA KRITIKA LITERATURA ANTZERKIA ARTEA ZINEMA MUSIKA DISEÑUA PUBLIZITATEA ARKITEKTURA INTERNET KOMIKIA BIDAIAK ZIENTZIA DANTZA IRITZIA KRITIKA LITERATURA ANTZERKIA ARTEA ZINEMA MUSIKA DISEÑUA PUBLIZITATEA ARKITEKTURA INTERNET KOMIKIA BIDAIAK

saski-naski



KRITIKA IBÓN EGAÑA

Bizi-mina

TITULUA: 'ZU'

EGILEA: ANJEL LERTXUNDI

ARGITALETXEA: EREIN

BIHOA alde aurretik oharra. Ez zait erraza egiten Anjel Lertxundiren Zu irakurritakoan liburuari buruz zerbait esatea, ez dakit zenbateraino sufrimendu hain egiazko eta hurbilekotik abiatzen den kontakizun bat har daitekeen beste literatur testu batzuk, fikziozkoak, har daitezkeen hoztasunez. Zu-k kontagai duena, izan ere, ez da fikzioa: idazle eta narratzailearen emazteari pankreako minbizia diagnostikatu osteko hilabeteen kontakizuna da abiapuntua eta ardatza. Edonola ere, ziur aski liburuak sortu didan hunkiduran, errealetik duenak beste zeriak izan du idazleak errealtate horretatik egin duen elaborazio estetiko eta etikoak, eta baduke, beraz, zentzurik, elaborazio horri lerro batzuk eskaintzek.

Hurrenkera kronologikoari jarraituz osatutako narrazioan, diagnostikoak markatzen du hasierako puntua, narratzailearen eta emaztearen bizitza erabat iraultzen duen berriak. Ondoren datoz minbiziak ezinbestean aldean dakartzanak (ospitaleratzeak, ebakun-

tza, kimioterapia, ileordea, larrialdiak...) eta baita prozesu horrekin batera doan prozesu psikologikoa-ren narrazioa ere (haserre, onarpena, etsipena, esperantza...).

2012tik 2015era arteko kontakizun hori bi narrazioale tartekatuz ematen du Lertxundi: lehen pertsona mintzo dena bata, eta hirugarrenean bestea. Zu izena eman dio emazteari, hala izendatuagatik narratzailearen bigarren pertsona sekula zuzentzen ez bazaio ere. Hala, hurbiltasuna eta distantzia tartekatzen ditu egileak, eta arnasa bezala erritmoa ematen dio kontakizunari.

Zu-ren senarra idazle eta irakurle amorratua baita, minbiziak dakartzan galderei erantzuteko (ba ote du alde onik minak? nola ikusten du mundua oinazetan denak? nola idatzi hurkoaren minaz?) eta galdera berriak bilatzeko, oraingo eta lehengo idazleen testuetara jotzen du narratzaileak (Camus, Mann, Sontag...), eta haiekiko elkarriketan hazitza testua. Dieta-rioak, autobiografiak eta mina hurretik bizitakoaren testigantza



Ez du minaren alderdi ilunena ezkutatzeko, baina asmatu du egileak muina azaltzen gaitzaren alderdi makurren laketu beharrik izan gabe

dira maiz erreferentzia horien jatorria, eta liburu ederragotzen duten aipu horiek leio ugari zabaltzen dizkiote irakurleari.

Zehatza da narrazioa, eta ez du minaren alderdi ilunena ezkutatzeko, baina asmatu du egileak muina azaltzen gaitzaren alderdi makurren laketu beharrik izan gabe. Heriotzaren mehatxua begi bistakoa bada ere, horrekin bizitzen ikasi behar duten pertsonaien ikaskuntza-prozesuan jarri du arreta egileak eta bikotearen ikaskuntza-prozesua irakaspen bihurtzen da irakurlearen eskutik. Tremendismorik gabe, bizi-nahi sasegatu bat darie orrialde hauei, partekatua den bizi-grina, izan ere, gaitzak Zu eta narratzailearen estuago batzen ditu gu batean: "gu esateari esker, eremu komun halako batean elkartzen gara biok (edo hala sinetsi nahi dut behintzat)". Erromantizismoaren antipodetako maitasun-aitorpen sasegatu hori eta bizitzari atzaparrarekin estu eusteko erabaki sendoa egin zaizkit liburu gogoangarri honetako alderdi ederrenetakoak.

SALDUENAK

Fikzioa

1. Zu

Anjel Lertxundi. Erein.

2. Isilpean gordea

Toti Martínez de Lezea. Erein.

3. Beti oporretan

Harkaitz Cano. Susa.

4. Muskerraren bidea

Bernardo Atxaga. Pamiela.

5. 12etan bermuta

Jasone Osoro. Elkar.

6. Hondamendia

Xabier Montola. Susa.

Ez Fikzioa

1. Lapur banden etika ala politika

Joseba Sarrionandia. Pamiela.

2. Ekarri armak

Imanol Murua. Elkar.

3. Nola? Irun meets New Orleans (liburua+diskoa)

Fermin Muguruza. Talka Records.

4. Korrontzi dantzan

Korrontzi. Baga Biga.

5. Gabriel Aresti - Bio...

Adur Larrea. Erroa.

ITURRIA: Elkar.

ERAKUSLEIHOA

LITERATURA

'Gidariaren okerra'

Gotzon Barandiaran. Susa. 125 orr. 15 euro.



Egia eta memoriaren hariak elkarlotzen

Elkartzetaz eta gogoetaz beteriko istorio iluna sortu du Gotzon Barandiaranek (Larraztezu, 1974). Gaixotasun larri bat duen taxista batek bahiketa bat antolatuko du, eta konplize bihurtuko ditu bere iloba eta diru premian dagoen gerra argazkilaria bat. Azken horiek kontakituko du istorioa, gertatutakoa argitzeko ahoalegia eginez. Egia eta memoriaren inguruko liburuak da Barandiaranen laugarrena; erritmo bizia-rekin idatzita, misterioz betetako kontakera lausoa darabil eta irakurlearen eskutik utzi ditu egia-aren hariak josteko ardura.

SAIAKERA

'Lapur banden etika ala politika'

Joseba Sarrionandia. Pamiela. 176 orr. 14 euro.



'Sari'-ren gogoeta politikokoak

Azken hamarkadetakoa eta gaur eguneko gure errealtate politikoa inguruan mintzo da 'Sari' bere azken lanean. Gai asko eta askotarikoaren artean, dominazioa eta sektarismoaz ari da idazlea, gutasuna aniztu beharraz eta politika egiteko ezintasunaz eta obligazioaz, besteak beste. Kritika eta autokritika arazoituaren bidez, teoria politiko oso bat doa azaltzen, botere ekonomiko, politiko eta militarren kontra, subjektu sozialak errebinkatuz. Umorea ere falta ez duen testu honek zer pentsatua emango dio irakurleari.

ZALDI EROA

